

2016 IRA: 30
SEP: 30

SARRERA	IRTEERA
zk. 763433	zk.

Att. Ana Oregi Bastarrika andreami
Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua
La Consejera de Medio Ambiente y Política Territorial
Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastian, 1
01010 – VITORIA-GASTEIZ

GAIA/ASUNTO: "LAG-EN BERRIKUSPENARI BURUZ EUSKO JAURLARITZAK EGINDAKO KONTSULTA" / "CONSULTA DEL GOBIERNO VASCO SOBRE REVISIÓN DE LAS DOT"

Erref./ Ref.: CO-16-22
Z Erref./ S Ref.: OT-011/15-DOT


Sail honetan uztailaren 7an sartu zen zure gutunaren bidez, aipatutako gaiari buruzko aurreikuspenak, zehaztapenak eta iradokizunak egiteko eskatzen zenuen. Gutun horri erantzunez, dagokion txostena bidaltzen dizut, aintzat har dezazun eta dagozkion ondorioetarako.

En respuesta a su carta con entrada en nuestro Departamento en fecha 7 de julio, a fin de formular las previsiones, determinaciones y sugerencias oportunas en relación al asunto de referencia, adjunto Informe correspondiente para su consideración y efectos oportunos.


Besterik gabe, aukera hau baliatuta, begirunez agurtzen zaitut.

Sin otro particular, aprovecho la ocasión para saludarle atentamente,

Bilbon, 2016ko irailaren 23an



Izp./ Fdo.: Unai Gangoiti Ciscar
INGURUMENEN ZUZENDARI NAGUSIA
EL DIRECTOR GENERAL DE MEDIO AMBIENTE



2016 IRA: 26
SEP: 26

SARRERA/ENTRADA IRTEERA/SALIDA

ZK/Nº _____ ZK/Nº 22452

LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO GIDALERROAK (LAG) BERRIKUSTEKO PROZEDURA.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren idatzi bat jaso zen Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Foru Sailean (erregistroko sarrera-data: 2016ko uztailak 7), eta bertan gonbitea luzatzen zitzaigun Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroak (LAG) berrikusteko prozedurari begira gure ustez komenigarriak diren aurreikuspenak eta zehaztapenak, baita datuak, informazioak eta iradokizunak ere, aurkez ditzagun.

Gai hori dela eta, txosten hau sinatzen duen teknikariak iradokizun hauek egitea komeni dela uste du:

1) Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroak (LAG) berrikusteko prozedurak ingurumen-ebaluazio estrategikoa gainditu behar du, Ingurumen Ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen 6. artikuluan eta EAEko Ingurumena Babesteko 3/1998 Lege Orokorraren 46. artikuluan xedatzen denez. Berrikuspenaren ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura ahalik eta lasterren hasi beharko litzateke.

2) Berrikuspenaren ingurumen-ebaluazioaren barruan lurraldeak artifizialtze berriari aurre egiteko duen gaitasunaren azterketa jaso beharko luke.

3) Berrikuspenaren ingurumen-ebaluazioak identifikatu egin beharko lituzke funtsezko erabakiak eta, ondoren, erabaki horietako bakoitzerako aukeren azterketa zorrotz bat egin, planaren jendaurreko informazioan eta

PROCEDIMIENTO DE REVISIÓN DE LAS DIRECTRICES DE ORDENACIÓN TERRITORIAL (DOT) DEL PAÍS VASCO.

Con fecha de entrada en el registro del Departamento Foral de Sostenibilidad y Medio Natural de 7 de julio de 2016, se recibe escrito de la Consejera de Medio Ambiente y Política Territorial del Gobierno Vasco, invitando a formular las previsiones y determinaciones así como los datos, informaciones y sugerencias que se estimen convenientes respecto al procedimiento de Revisión de las Directrices de Ordenación del Territorial del País Vasco.

Al respecto, el técnico que suscribe considera conveniente formular las siguientes sugerencias:

1) La revisión de las Directrices de Ordenación del Territorio se debe someter a evaluación ambiental estratégica, según se establece en el Artículo 6 de la Ley 21/2013 de Evaluación Ambiental y en el Artículo 46 de la Ley 3/1998, General de Medio Ambiente de la CAPV. Se debería iniciar el procedimiento de evaluación ambiental estratégica ordinaria de la Revisión lo antes posible.

2) La evaluación ambiental de la Revisión debería incluir un análisis de la capacidad de acogida del territorio frente a la nueva artificialización.

3) La evaluación ambiental de la Revisión debería identificar las decisiones clave y, posteriormente, realizar un riguroso análisis de alternativas para cada una de esas decisiones, considerando todas las alternativas propuestas en la información

konsultetan proposatutako aukera guztiak kontuan hartuta.

4) Berrikuspenaren ingurumen-ebaluazioak ingurumeneko alderdi guztien, baita paisaiarena ere, ikuspen integral batean egon beharko litzateke oinarrituta.

5) Ingurumen-ebaluazioari buruzko arautegiak aurreikusten zuen jada, eta aurreikusten jarraitzen du, prozedura horren menpeko plan guztiak jarraitzeko mekanismo bat. Legezko betebeharrak bat denez gero, horixe izan beharko litzateke lurralde plangintza jarraitzeko mekanismoa.

6) Onartu egin beharko litzateke lurralde plangintzak, beti garapen berriak proposatzen dituen heinean, ingurumenaren gaineko eragin negatiboa duela, handiago edo txikiagoa, proposatutako lurralde-eremuaren arabera.

7) Paisaia ez litzateke jo behar lurraldearen antolamendu-politikari bakarrik dagokion arazo bat, baizik eta ingurumenari berari lehentasunez dagokion arazo bat.

8) "Azpiegitura berdea" eta "korridore ekologikoa" kontzeptuak ingurumen-politikari berari dagozkion arazotzat jo beharko lirateke, eta ez lurraldearen antolamendu-politikari dagozkionak.

9) Egoitzen kuantifikazio errealista bat proposatu beharko litzateke, aurretik lurraldearen jasotzeko gaitasuna zehaztu eta gero, eta EAEko biztanle-hazkundera buruzko aurreikuspenekiko zuzeneko proportzionaltasun egokia gordeko du.

pública y consultas del plan.

4) La evaluación ambiental de la Revisión debería basarse en una visión integrada de todos los aspectos ambientales, también del paisaje.

5) La normativa de evaluación ambiental ya preveía, y sigue previendo, un mecanismo de seguimiento de los planes sometidos a dicho procedimiento. Siendo como es una obligación legal, éste debería ser el mecanismo de seguimiento de la planificación territorial.

6) Se debería asumir que la planificación territorial, en la medida en que siempre propone nuevos desarrollos, tiene siempre una afección negativa sobre el medio ambiente, mayor o menor dependiendo del modelo territorial propuesto.

7) El paisaje no debería ser considerado un aspecto propio sólo de la política de ordenación del territorio sino prioritariamente de la política ambiental.

8) Los conceptos de "infraestructura verde" y "corredor ecológico" deberían ser considerados aspectos propios de la política ambiental y no de la política de ordenación del territorio.

9) Se debería proponer una cuantificación residencial realista que, previa consideración de la capacidad de acogida del territorio, guardara adecuada y directa proporción con las previsiones de crecimiento poblacional en la CAPV.

10) Gutxienez, argi eta garbi geratu beharko litzateke ezarrita proposatutako gutxieneko egoitzazko kuantifikazioa ez dela loteslea eta udalek haren azpiko kuantifikazioak -baita zero kuantifikazioa ere- proposa ditzaketela, hiri antolamenduko plan orokorrek ohiko ingurumen-ebaluazioaren eremuaren barruan.

11) LAGetako antolamendu-mailen terminologia loteslea izan beharko litzateke lurralde plan partzialetarako.

12) Landaguneetako kokatze-ereduari dagokionez, Bizkaiko zatirik handiengan sarritan landa-ingurunean bigarren egoitza ezartzea ekarri du edo landaguneetako okupazio-handitzeak modu azkarrean, eta eredu horrek erantzuten dio ingurune horien hiru garapen ezegokia defendatzen duen logikari. Sentikorrek diren ingurune horietako biztanle-gehikuntza bat dakar eta sarri ondorio negatiboak ekarri ditu ingurumenaren ikuspegitik begiratura: urbanizazio lausotua, motorra erabiltzen duen mugikortasuna handitzea, ibilgailu partikularra bultzatuz, zerbitzuak handitzeko beharrezana edo ondorio negatiboak paisaiarako. Bestetik, landaguneetan nekazaritzako ustiatzei lotuta ez dauden etxebizitzak eraikitzeak aukerak landaguneen jarraipenerako bidea ematen du, baita landa-inguruneari lotutako eta ingurumenaren ikuspegitik positiboak izan daitezkeen eta landagunea bizirik eusteko jarduerak gara ditzaketen biztanleen kokatzea ere. LAGek arazo horren inguruko gogoeta egin beharko lukete eta mugak proposatu, landaguneetan edozein motatako kokatze bidezkoa izan ez dadin,

10) Al menos, debería quedar claramente establecido que la cuantificación residencial mínima planteada no es vinculante y que los ayuntamientos pueden plantear cuantificaciones inferiores, incluso cero, en el marco de la evaluación ambiental de los Planes Generales de Ordenación Urbana.





11) La terminología de las categorías de ordenación de las DOT debería ser vinculante para los Planes Territoriales Parciales.

12) Respecto al modelo de asentamiento en los núcleos rurales, en la mayor parte de Bizkaia ha supuesto, en numerosas ocasiones, la implantación en el medio rural de viviendas de segunda residencia o aumentos de ocupación de los núcleos rurales de manera rápida y que atiende a una lógica de desarrollo urbano no adecuada a estos entornos. Supone un aumento de población en estos ámbitos sensibles que ha dado lugar, en muchas ocasiones, a consecuencias negativas desde el punto de vista ambiental: urbanización difusa, aumento de movilidad motorizada con coche particular, necesidad de aumento de servicios o efectos paisajísticos negativos. Por otro lado la posibilidad de edificar viviendas en núcleos rurales no vinculada a explotaciones agrarias posibilita la continuidad de los núcleos rurales y el asentamiento de población que puede desarrollar actividades ligadas al medio rural, que desde el punto de vista ambiental pueden ser positivas así como mantener el medio rural vivo. Las DOT debieran reflexionar sobre esta cuestión y proponer limitaciones, de manera que no sea posible cualquier tipo de

edo ez lurralde osoan modu uniformean. Esaterako, udalerraren edo erakunde txikiaren landatartasun-mailari buruzko aipamena egin liteke, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2015eko irailaren 16ko Aginduaren I. eranskinean jasotakoa (haren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuen garapen eta sustapenerako 2015eko ekitaldirako diru-laguntzen deialdia egiten da), eta landaguneetako lurzoru urbanizaezineko etxebizitza berriak nekazaritza edo abeltzaintzako ustiapen ekonomikoarekin lotu landatartasun-maila txikiagoko udalerrietan.

asentamiento en núcleo rural, o no en todo el territorio de manera uniforme. Por ejemplo, se podría considerar una referencia del grado de ruralidad del municipio o de la entidad menor, que se establece en el Anexo I de la Orden de 16 de septiembre de 2015, de la Consejera de Desarrollo Económico y Competitividad, por la que se convocan, para el ejercicio 2015, las ayudas destinadas a la promoción y al desarrollo de las zonas rurales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, vinculando también, las nuevas viviendas en suelo no urbanizable de núcleo rural a explotación económica agrícola o ganadera, en los municipios de menor ruralidad.

Bilbon, 2016ko irailaren 23an

<p>INGURUMENAREN KALITATEA ZAINTEKO GOI-TEKNIKARIA / EL TÉCNICO SUPERIOR DE CALIDAD AMBIENTAL</p>  <p>Javier Cáceres Lafuente</p>	<p>INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN EBALUAZIORAKO ATALEKO BURUA / EL JEFE DE LA SECCIÓN DE EVALUACIÓN DE IMPACTO AMBIENTAL</p>  <p>Xabier Iturrate Garrell</p>
<p>INGURUMENAREN KALITATEA ZAINTEKO ZERBITZUKO BURUA / LA JEFA DEL SERVICIO DE CALIDAD AMBIENTAL</p>  <p>Ana Mª Bajo Benítez</p>	<p>O^ºE^º/ V^ºB^º INGURUMENEN ZUZENDARI NAGUSIA EL DIRECTOR GENERAL DE MEDIO AMBIENTAL</p>  <p>Unai Gangoiti Ciscar</p>